

ANGELUKO IKASLEAK

HAMARGARREN ERAKASPEÑA

-OSO GUNEKO ERAKASKERA

① ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1996-97. IKAS-URTEA

1. Nor da Jakes Pintero?
2. Zer gizon mota da?
3. Lehen danik hautaldireko gaitzak aldatuak dira?

②

JAKES PINTERO BOZ-EMAILE

Nork ez zuen ezagutzen Jakes Pintero? Sudurra gorri eta xorrotx, galtzak oro pedaxu, eskalapoin zikin arrailatu batzu herrestan, maiz iragaiten zitzaikun herrian gairi, baso bat arnoaren eske, ogi-puska baten galdez ahalaz jaki zarbaitekin. Lanik kasik batere gabe, harat-hunat ibilki bizi zen.

-Giza-gaizoa! zioten urrikari zutenek.

-Trixtea! zioten mesprexatzalek.

-Adiskidea! zioten aldiz deputatu-gaiek bozketa zabiltzalarik. Eta orduan, beharrezko norbait sendituz bere burua, xut-xuta emaiten zen, orori beha, sudurra distirant.

Egia erran, denbora hetan bozak ez ziren radioaz ez telebixtaz preparamen, bainan maizegi ostatuen bidez. Boz-untziek ez zuten boz-paper bakar bat itzuliko, pinta bat arnotan freskatu gabekorik. Eta arno bazela! Gorritik, xuritik, bien artekotik! Hots, alderdi bezanbat arno kolore!

Beraz, behin gisa hortan jaundurik, gure Pinterok bozak aintzineko aste guzia ostatuetan iragan zuen, husten zuen baso arno bakoitzean bere boza hitz emanez edaterat eskaintzaleari. Barrandutzen zutenen arabera, bazituen husturik ehun eta berrogoi bat baso. Hoinbertze edan ondoan, ezin orroitz, nor izan zen xarmentenik eta emaitenik eta beraz boza merexi zuenik? Zinez, gure mozkorrek burua hutsa zuen, sakelak boz-paperez beteak bezenbat.

Igande goizean sartu zen bozetako kofesategian, jaun merak eman zion enveloparekin. Bainan adixkidek sakelaratu hoinbertze paperetan hauta?

-Bo! arnoentzat bezala egin dezagun! Arno guziak ez ote ditut sakel bererat igorri? Are! bota jaun horiek oro envelopea berean!

Eta paper lodixko batekin eman zuen boza, Bulegoko jauneri erraiten ziotelarik:

-Hau bederatzi ilabeteko ernaria da. Estona nin --teke haatik deputatu sabeltara batez erdi baledi!

Horra nola Jakes Pinterok trufatzen zituen arnoz gangailerraino ase zuten deputatu-gaiek.

Egungo eguncan ez ahal da holako deputatu-gairik! Ez eta boz-emaiterik!

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. Zabiltzalarik 32. Eman zion.
33. Egin dezagun 34. Nenteke.
34. Erdi baledi.

31. IBILI Indic. Imparfait. Présent

Ni nindabilan = je marchais	Nabila = je marchais
Hi mindabilan =	Habila =
Zu zinabiltzan =	Zabiltza =
Hura zabilan = etc.	Dabila = il marchait
Gu ginabiltzan =	Gabiltza =
Zuek zinabiltzaten =	Zabiltzate =
Heik zabiltzan = ils marchaient	Dabiltza etc =

32. UKAN. Conj. à dble. cplt. Indic. Imparfait

O. Sing. • Hari = à lui • Cpt Indic. Sing.

Nik nion = je le lui avais	A distinguer de Erran vs fort = dire m conjug. à l'Imparfait de l'indic. Nik nion = je demis.
Zuk zinion = vs le lui aviez	
Harik zion = il le lui avait	
Guk ginion = ns le lui avions	
Zuek zinioten = vs le lui aviez	
Heik zioten = ils le lui avaient	
Erraiten nion = je le lui disais.	

33. UKAN. Subjonctif. Présent

Objet singulier	Objet pluriel
Nik ukan dezatan = que je l'aise	Uk ditzatan = les aise
Hi " dezatan	" ditzatan =
Zu " dezatan	" ditzatan =
Harik " dezatan	" ditzatan =
Guk " dezatan	" ditzatan =
Zuek " dezatan	" ditzatan =
Heik " dezatan et	" ditzatan = et